

# Sagardo Eguna 2008

Ostalaritza Gipuzkoak bat egin zuen Donostiako Sagardo Egunean sagardo ekoizle gipuzkoarrek eta sariak banatu zituen 65 urte bete dituzten kideen artean. Irailaren 6an ospatu zen egitasmoak botilako sagardoaren kontsumoa hedatzea zuen helburu nagusi gisa.



Gure lehendakariorde Itziar Ilarramendi, omenduekin eta Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearen lehendakariarekin batera.

Donostiako 2008ko Sagardo Egunak ekoizle eta kontsumitzaile ugari bildu zituen beste urte batez Konstituzio plazan. Guztira, 50 sagardogilek parte hartu zuten eta 10.000 sagardo litro banatu ziren irailaren 6an egin zen azokara gerturatu ziren ehunka pertsonen artean.

Bertan izan ziren, baita ere, Gipuzkoako Ostalaritza Enpresarien Elkarteko hainbat ordezkari eta sagardogileei egiten zaien omenaldiarekin bat egin zuten urtero bezala. Gipuzkoako Sagardogileen Elkartearekin batera, azken hamabi hilabeteetan zehar 65 urte bete dituzten sagardogileei urte hauetan guztietan egindako lanagatik esker ona eman zieten hainbat oparirekin. Ascensio-Intxauspe, Hernaniko Itxas-Buru sagardotegikoa; Joxe Antonio Iparragirre, Zeraingo Otatzakoa; Jose Cruz Kalonje, Donostiako Igeldo sagardotegikoa; Juan Mendizabal, Astigarragako Mendizabalekoa, eta Lourdes Portugal, Oiartzungo Aristizabalekoa izan ziren sarituak. Lore sorta eta intsignia bana jaso zuten.

## GIRO APARTA

Sagardo Egunaren xede nagusietako bat da botilako sagardoaren kontsumoa hedatzea, txotx garaian ez ezik urte osoan zehar izan dezan sagardoak bere lekua. Modu horretan kontserbatutako sagardo mota ugari dastatu ahal izan zituzten bertaratutako guztiek, goizeko 11.00etatik eguerdiko ia ordu biak arte, bai eta plazan zehar jarritako postuetan zeuden ogitartekoak ere. Eguraldiak asko lagundu ez bazuen ere, giro alaia izan zen goiz osoan zehar Estanga anai-arreben



Itzagarritza giroa Sagardo Egunean.

trikitixaren soinuarekin eta Sebastian Lizaso eta Beñat Gaztelumendi bertsolarien saioarekin. ■

**GIPUZKOAKO SAGARDOGILEEN ELKARTEA**

Tel. 943 33 68 11 Fax: 943 33 37 96

<http://www.sagardotegiak.com/>